

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO
DEPARTAMENTUA

*2009ko urriaren 27ko 180/09 zk. FORU AGINDUA,
2009. urteko Gipuzkoa-Giza Eskubideak sariaren
deialdia egiten duena.*

Departamentuko foru diputatuak ondoko foru agindua eman du gaur:

Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuak gure lurralde historikoko pertsona edo gizarte erakunde horiek Giza Eskubideen alde egiten duten lana aintzatetsi nahi du, duela urte batzuk sortutako Gipuzkoa-Giza Eskubideak sariaren bitartez.

Horretarako, foru agindu honek ezartzen ditu sari horren 2009ko deialdia eta oinarriak.

Horregatik guztiagatik, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuak,

EBATZI DU

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Giza Eskubideen alde lan egiten duten pertsona edo gizarte erakundeentzako 2009ko Gipuzkoa-Giza Eskubideak sariaren deialdia egitea, foru agindu honen eranskinean ezarritako oinarriei jarraiki.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkezteko dezaquete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2009ko urriaren 27a.—Ramón Martiarena Bergaretxe, idazkari teknikoak. (12717)

ERANSKINA

Gipuzkoa-Giza Eskubideak sariaren deialdiaren oinarriak.

1. artikulua. Xedea.

Oinarri hauen xedea Gipuzkoako pertsona fisiko edo juridikoek Giza Eskubideak defendatu eta sustatzeko egindako lana publikoki aintzatezteko helburua duen 2009ko Gipuzkoa-Giza Eskubideak sariaren deialdia egin eta arautzea da.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE DEPORTES Y
ACCION EXTERIOR

ORDEN FORAL 180/2009, de 27 de octubre, por la que se convoca el premio Gipuzkoa Giza Eskubideak para el año 2009.

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

El Departamento de Deportes y Acción Exterior quiere reconocer el trabajo que, de continuo, realizan personas o entidades sociales de nuestro territorio histórico a favor de los Derechos Humanos, a través de la concesión del premio Gipuzkoa-Giza Eskubideak, instituido hace unos años.

A tal fin, la presente orden foral establece las bases que regularán la convocatoria y el otorgamiento de dicho premio en el año 2009.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior,

RESUELVE

Convocar el premio Gipuzkoa Giza Eskubideak para el año 2009, dirigido a reconocer el trabajo realizado por personas o entidades sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa a favor de los Derechos Humanos, con arreglo a las bases que figuran en el anexo de la presente orden foral.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra la misma recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia - San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime pertinente.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Donostia-San Sebastián, a 27 de octubre de 2009.—El secretario técnico, Ramón Martiarena Bergaretxe. (12717)

ANEXO

Bases de la convocatoria del premio Gipuzkoa Giza Eskubideak.

Artículo 1. Objeto.

El objeto de las presentes bases es convocar y regular el premio Gipuzkoa-Giza Eskubideak para el año 2009, cuya finalidad es reconocer públicamente la labor de personas físicas o jurídicas de Gipuzkoa en la defensa y promoción de los Derechos Humanos.

2. artikulua. Parte hartzaileak.

Saria jasotzeko hautagai izan ahalko dira euren Gipuzkoako Lurralde Historikoko eguneroko zereginen sariaren helburu bera duten pertsona edo erakundeak.

3. artikulua. Hautagaien aurkezpena.

Sari honetarako hautagaiak pertsona fisiko eta juridikoek edota instituzio eta erakundeek aurkeztu ahal izango dituzte, hautagaiak saria merezi duela egiaztatzen duten memoria edo argibide-agiriak erantsita.

Epaimahaiak, ofizios sartuko ditu deialdian aurreko urteetan aurkeztu eta saritu ez diren hautagaiak, baloratuak eta, kasua bada, saria lortzeko proposatuak izan daitezten.

Hautagaiak 2009ko azaroaren 20ko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren Erregistro Orokorrean (Gipuzkoa Plaza z.g., 2. solairua - 20004 Donostia) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

4. artikulua. Sariaren ezaugarriak.

Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuak, 6. artikuluan aipatutako epaimahai kalifikatzaileak proposatuta, emandako foru aginduaren bidez, Gipuzkoa-Giza Eskubideak saria merezimendu gehien egiaztatzen dituen pertsona edo erakundeari emango zaio eta aintzatespen publikoa, garaikurra eta 6.000,00 euro jasoko ditu.

5. artikulua. Sariaren kudeaketa.

Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuari dagokio deialdi hau kudeatzea, bai eta sariaren zenbatekoa ordainketa bakarrean ordaintzea ere.

6. artikulua. Epaimahaiak.

Hautagaiak epaimahaiak baloratu ditu eta hauek izango dira horrek kideak: Kiroletako eta Kanpo Ekintzako foru diputatua -presidentea izango da-, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideetako zuzendaria, Lankidetzak, Giza Eskubideak eta Berdintasuneko zuzendaria, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Kiroletako eta Kanpo Ekintzako batzordeko presidentea, euskal unibertsitateetako hiru ordezkari eta 2008an saritutako pertsona.

Epaimahai kalifikatzailean idazkari gisa jardungo da, boto-rik gabe, departamentuko Giza Eskubideetako gaitako aholkularia.

Epaimahaiak dagokion proposamena egingo du deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera, kontuan hartuta saritu beharreko pertsona edo kolektiboaren garrantzia eta ibilbidea. Justifikatutako arrazoiak -gizarte edo gizalde interesekoak- izanez gero, epaimahaiak saria aurkeztutako hautagaien artean ez dauden pertsona edo erakundeei ematea proposatu edo saria hutsik uztea erabaki dezake, proposaturiko pertsona edo erakunderen batek ere merezi ez duenean, epaimahaikideen gehiengoaren iritziz.

Erabakiak botoen gehiengoarekin hartuko dira eta presidentek desegingo ditu gerta daitezkeen berdinketak. Idazkaritzak erabakien akta egingo du.

Artículo 2. Participantes.

Podrán optar al premio aquellas personas o entidades que con su trayectoria o labor diaria en el Territorio Histórico de Gipuzkoa respondan a la finalidad del mismo.

Artículo 3. Presentación de candidaturas.

Las candidaturas a este premio podrán ser presentadas por personas físicas o jurídicas, instituciones o entidades, acompañadas de una memoria o de documentos explicativos que acrediten que la candidatura es merecedora del premio.

El tribunal, de oficio, incorporará las candidaturas presentadas y no premiadas en las anteriores ediciones para que puedan ser valoradas y, en su caso, propuestas para la obtención del premio.

Las candidaturas deberán ser presentadas antes de las 14:00 horas del día 20 de noviembre de 2009, en el Registro del Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Plaza de Gipuzkoa, s/n, 2.ª planta, - 20004 Donostia-San Sebastián), o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 4. Características del premio.

Mediante orden foral del diputado del Departamento de Deportes y Acción Exterior, dictada a propuesta del tribunal calificador a que hace referencia el artículo 6, se adjudicará el premio Gipuzkoa Giza Eskubideak a la persona o entidad que acredite los méritos para ello, recibiendo la misma un reconocimiento público, una distinción y una dotación económica de 6.000,00 euros.

Artículo 5. Gestión del premio.

Corresponderá al Departamento de Deportes y Acción Exterior la gestión de esta convocatoria, así como el abono de la cantidad incluida en el premio a través de un único pago.

Artículo 6. Tribunal.

Las candidaturas serán valoradas por un tribunal calificador compuesto por el Diputado Foral de Deportes y Acción Exterior, que lo presidirá, la Directora de Derechos Humanos del Gobierno Vasco, la Directora General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Presidente de la comisión de Deportes y Acción Exterior de las Juntas Generales de Gipuzkoa, tres representantes de las universidades vascas y la persona premiada en el año 2008.

En el tribunal calificador actuará como secretaria, con voz pero sin voto, la asesora del departamento en materia de Derechos Humanos.

El tribunal realizará su propuesta de acuerdo con los criterios establecidos en esta convocatoria, teniendo en cuenta la valoración que le merece el significado y la trayectoria de la persona o colectivo a premiar. Por razones justificadas, y de interés social y humanitario, el tribunal podrá proponer la concesión del premio a personas o entidades no incluidas en las candidaturas presentadas o la declaración como desierto del premio cuando ninguna de las personas o entidades propuestas resulte merecedora del mismo, a juicio de la mayoría de componentes del tribunal.

Los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos, pudiendo dirimir el Presidente los empates que se puedan producir. La secretaria levantará acta de los acuerdos que se adopten.

7. artikulua. Esleipen irizpideak.

Epaimahaiak honako irizpide hauek izan beharko ditu kontuan:

— Pertsona edo erakundeak Gipuzkoan Giza Eskubideen sustapen eta eraikuntzaren alde ibilbide luzea izatea.

— Egindako lanak Gipuzkoan gizarte eragina izatea.

8. artikulua. Ebazpena.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekin-tzako Departamentuko foru diputatuari dagokio foru agindu bidez Gipuzkoa-Giza Eskubideak 2009 saria epaimahaiak proposatutako pertsona edo erakundeari ematea.

Sari banaketa eta aintzatespen publikoko ekitaldia 2009ko abenduaren 11n egingo dira.

9. artikulua. Aurrekontua, programa eta kontu saila.

Oinarri hauek araututako sarira zuzendutako kredituak 0220.200.481.00.10 2009 kontu sailaren kargurakoak izango dira.

Artículo 7: Criterios de adjudicación.

El tribunal deberá tener en cuenta los siguientes criterios:

— Trayectoria prolongada de la persona o entidad a favor de la promoción y construcción de los Derechos Humanos en Gipuzkoa.

—& mpacto social en Gipuzkoa del trabajo realizado.

Artículo 8. Resolución.

Corresponderá al diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa, mediante orden foral, conceder el premio Gipuzkoa-Giza Eskubideak 2009 a la persona o entidad que sea propuesta por el tribunal.

La entrega del premio y el acto de reconocimiento público se llevarán a cabo el día 11 de diciembre de 2009.

Artículo 9. Presupuesto, programa y partida.

Los créditos consignados para el otorgamiento del premio objeto de las presentes bases, se imputarán a la partida presupuestaria 0220.200.481.00.10 2009.